



Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista en formato digital que publica artículos relacionados con los procesos de enseñanza y aprendizaje, a través de Internet y bajo la licencia Creative Commons.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una publicación semanal, gratuita y libre de ser impresa que cada seis meses divulga artículos científicos, propuestas didácticas y artículos de opinión sobre cuestiones relativas al mundo de la didáctica.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, asume como objetivo principal la difusión del conocimiento pedagógico y de metodologías didácticas que favorezca la expansión de prácticas de educativas efectivas.

Ikastorratza, e-Revista de Didáctica, es una revista bilingüe, abierta a propuestas de autores y autoras que deseen publicar trabajos inéditos tanto en euskara como en castellano.

IKASTORRATZA. Didaktikarako e-aldizkaria

IKASTORRATZA. e-journal on Didactics

IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica

ISSN: 1988-5911 (Online) Journal homepage: <http://www.ehu.eus/ikastorratza/>

Hego Euskal Herriko etorkizuneko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen usteak curriculumeko lau hizkuntzekiko, honako bost ezaugarrien gainean: ezagutza, zailtasuna, garrantzia, hautaketa eta justifikazioa

Mikel Gartziarena

mikel.gartziarena@ehu.eus

Nerea Villabona

nerea.villabona@ehu.eus

To cite this article:

Gartziarena, M., & Villabona, N. (2021). Hego Euskal Herriko etorkizuneko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen usteak curriculumeko lau hizkuntzekiko, honako bost ezaugarrien gainean: ezagutza, zailtasuna, garrantzia, hautaketa eta justifikazioa. *IKASTORRATZA. e-Revista de Didáctica*, 28, 52-71. DOI: 10.37261/28_alea/3

To link to this article:

https://doi.org/10.37261/28_alea/3

Published online: 31 Mar. 2022

Hego Euskal Herriko etorkizuneko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen usteak curriculumeko lau hizkuntzekiko, honako bost ezaugarrien gainean: ezagutza, zailtasuna, garrantzia, hautaketa eta justifikazioa

Mikel Gartziarena

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

mikel.gartziarena@ehu.eus

Nerea Villabona

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

nerea.villabona@ehu.eus

Laburpena

Azterketaren helburua da Hego Euskal Herriko Haur eta Lehen Hezkuntzako Gradu-ikasleek euskarari, gaztelaniari, ingelesari eta frantsesari buruz dituzten usteak identifikatzea. Ikerketak honako bost ezaugarri zehatz aztertzen ditu: hizkuntza-gaitasuna, garrantzia, zailtasuna, galdetegi betetzeko hizkuntza-aukeraketa eta justifikazioa. Ikerketak izaera kuantitatiboa du, eta 564 Gradu-ikasleren usteak jasotzen ditu online galdetegi bidez. Emaitzek erakusten dute euskara ardatz duen hirueletasunaren aldeko uste sendoak dituztela, euskara baita gehien balioesten duten hizkuntza. Hizkuntza-gaitasunari dagokionean, partaideek pareko espainola- eta euskara-maila adierazi arren, etorkizuneko irakasleek uste dute euskara hizkuntza zaila dela ikasten, ingelesa baino are zailagoa.

Hitz gakoak: eleaniztasuna; euskara; usteak; etorkizuneko irakasleak; Euskal Herria.

Pre-service teachers' beliefs about the four languages of the curriculum in the South of the Basque Country regarding the following five aspects: language proficiency, difficulty, importance, choice and justification

Abstract

The aim of the study is to identify the beliefs of undergraduate students doing the degree in Early Childhood and Primary Education towards Basque, Spanish, English and French. The investigation analyzes the following five specific characteristics: the proficiency level, the importance given to the languages, its difficulty, the language choice when completing the questionnaire and its justification. The research follows a quantitative approach and gathers the beliefs of 564 undergraduate students through an online questionnaire. Findings show that pre-service teachers hold firm beliefs towards a Basque-focused trilingualism, as Basque is considered the most important language. Although they report equal proficiency levels of Spanish and Basque, these future teachers believe that Basque is a difficult language to learn, even more difficult than English.

Keywords: multilingualism; Basque; beliefs; pre-service teachers; Basque Country.

1. Sarrera

Eleaniztasuna eta euskara. Funtsezko bi gai dira euskal lurraldeotan, eta bereziki esanguratsuak biak batera aurkezten zaizkigunean. Eleaniztasunarena gertakari zaharra bezain arrunta da gurean, eta euskara, hizkuntza minorizatu gisa, egokitzen eta berrasmatzeko lanetan ari da mendez mende hizkuntzen arteko ekuazio horretan integratu ahal izateko. Hezkuntzak berebiziko garrantzia du, alde batetik, gizartearen balio eta behar linguistikoak ase eta hornitu behar dituelako eta, bestetik, transformazio eta normalizazio gune erabakigarria ere badelako. Euskal eskolaren jomuga da ikasle-eleaniztunak eta euskaldunak heztea (Eusko Jaurlaritza, 2015; Nafarroako Gobernua, 2014). Gainera, Martínez de Lunak (2018, 63. or.) esan bezala “eleaniztasuna, onarpen zabaletik harago, premia ere badela”, datuek hori berresten dute.

Egoera soziolinguistiko eta soziopolitikoari begira, eleaniztasuna eta euskara babesten dituen hezkuntza-egitasmoak, erritmoak eta momentuak ezberdinak dira Hego Euskal Herriko bi administrazio politikoetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, esan genezake, hirueletasuna kontsolidatu dela eta Nafarroako Foru Erkidegoan erronka D eredu eleanitza sustatzea dela.

Euskal hezkuntzaren bizkarrezur diren lau hizkuntza kurrikularrak (euskara, espainola, ingelesa eta frantsesa) aztergai dira honako ikerketan. Hain zuzen ere, ikerketa honek jomuga du Nafarroako Foru Komunitateko eta Euskal Autonomia Erkidegoko (hemendik aurrera bien batura adierazteko: *Hegoalde*) Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak ikasten ari diren ikasleen hizkuntza-usteak ezagutzea. Modu kuantitatiboan jaso dira 564 ikasleren usteak, eta analisi estatistiko-deskriptiboan bidez deskribatu dira etorkizuneko irakasleek lau hizkuntzekiko dituzten usteak. Hain zuzen ere, ondorengo bost aspektu izango dira ikergai: bat, hizkuntza bakoitzean norberak bere buruari aitortutako hizkuntza-gaitasuna; bi, lau hizkuntza horien artean norberak bakoitzari ematen dion garrantzia; hiru, hizkuntza horiek ikasterako garaian norberak bakoitzari ematen dion zailtasuna; lau, galdetegia betetzerakoan egin duten hizkuntza-hautaketa; eta, bost, hautaketa hori egin izanaren arrazoia. Azken finean, ikerketaren ekarpen nagusia etorkizunean irakasle izango direnen hizkuntza-usteak sakonago ezagutzea da, hots, euskararekiko eta gainerako hizkuntzekiko uste zehatzak jaso eta euskara horien artean nola kokatzen den egokiago identifikatzea.

2. Oinarri teorikoa

Atal honetan, aurretiaz egin diren ekarpenen eta ikerketa-emitzen azalpena egingo da. Bereziki azpimarragarriak izango dira euskara nahiz eleaniztasuna ikergai izan dituzten EAEko eta Nafarroako Foru Komunitateko ekarpenak. Honako ikerketak etorkizunean irakasle izango direnen usteak deskribatu nahi ditu, biharko irakasleen profila sakonago ulertu eta premiak hobeki identifikatzeko.

2.1. *Eleaniztasuna: nazioartetik etxera*

Gai ezaguna da Europar Batasunaren hizkuntza-politika: biztanle orok, haren lehen hizkuntzaz gain, bi atzerriko hizkuntza ezagutu eta hitz egiteko gai izatea da helburu. Hein handi batean, eleaniztasunaren loraldia iritsi da globalizazioaren eta migrazio-fluxu etengabearen poderioz, izan ere, gaur egun oso ohikoa da hainbat ikasleren etxeko hizkuntza ez izatea bizi den gizarte konkretu horretan presentzia handikoa (Etxebarrieta et al., 2020). Europako eremuan, eleaniztasunaren hedapena errotu eta sakondu egin da, eta zabaltze horren atzean bi gertakari nagusi gertatu dira: batetik, ingelesaren irakaskuntzaren normalizazioa, bigarren hizkuntza gisa edo atzerriko hizkuntza moduan irakatsirik; eta bestetik, lekuan lekuko hizkuntza gutxituen suspertzea hezkuntza testuinguruan (Gorter & Cenoz, 2017). Bi gertakariok behagarriak dira Hegoaldeko hezkuntza-egitasmoetan. Alde batetik, euskararen irakaskuntzaren aldeko ereduak sortu dira, lekuan lekuko harrera, muga nahiz oztopo juridiko ezberdinekin; eta bestetik, EAEn eta Nafarroako Foru Erkidegoan ingelesaren irakaskuntzaren aldeko apustua sendotu egin da, euskal ikasleen atzerriko hizkuntza nagusia bihurtu baita. Nafarroaren kasuan, ingelesaren irakaskuntza asko hedatu da azken urtetan, batez ere ingelesa irakaskuntza gisa erabiltzen duten programei esker, baina euskararen presentzia ez da neurri berean areagotu. Askotan hizkuntza minorizatua hizkuntza-ideologiek nahastu eta ilundu izan da (Erdocia, 2018).

Eleaniztasunaren gaurko ikuspegia bestelakoa da iraganearekin konparaturik; hain zuzen ere, elebiduna edota eleaniztuna izatea honakoaren sinonimo zen: elebiduna edota eleaniztuna izateak erreferentzia egiten zion jatorrizko hiztun elebakarraren maila berean hainbat hizkuntza ezagutu eta mintzatzearen ideari (Grosjean, 1985). Hizkuntzen ikuspegi elebakar baina ustez eleanitzaren erro-erroan, helburu lortezina eskatu izan zaio eleaniztunari: dakizkien hizkuntza guztietan natiboaren hizkuntza-gaitasunaren idealizazioa eta lorpena (Cenoz & Gorter, 2011, 2014). Oro har, iraganean

eleaniztasunaren ikuspegia erabat elebakarra izan da: zenbat eta berezko hiztunaren idealizaziotik gertuago, orduan eta elebidun orekatuagoa eta bikainagoa (Conteh eta Meier, 2014).

Hizkuntzen irakaskuntzaren DNAn dago hizkuntzak modu isolatuan eta elkarrengandik bereizirik irakastea. Eleaniztunen hizkuntza-jardunak modu berean ulertu izan dira, bizkar emanda errealitate eleanitzari (Grosjean, 1985). Hizkuntzak elkarrengandik isolatzeko eta banatzeko ikuspegiak eleaniztunaren irudia lausotu du mende luzez. Eleaniztuna hiztun mugatu, gabezidun, gisa ulertua izan da, eta ekintza horrek bi ondorio nagusi ekarri ditu: bat, ikasi nahi zen bigarren edo hirugarren hizkuntza horretan murgiltze-ereduak diseinatzea; eta bi, ikasprozesu horretan zehar, ikasleak dakizkien gainerako hizkuntzak desaktibatu eta interferentziak ahal bezainbeste ekiditea (Gorter & Cenoz, 2017).

Gaur egun ezagutzen dugun eleaniztasunaren ikuspegi integratzailea, nagusiki, mugarri izan diren izen bereko bi lanen ekarpenei esker izan da: *The Multilingual Turn* (Conteh & Meier, 2014; May, 2014). Ekarpentok bigarren hizkuntzak ikasteko ikuspuntu tradizionalarekin hausten dute, hau da, bigarren eta hizkuntza gehigarrietan berezko hiztuna erreferentzia izatearekin. Hiztun eleanitzaren ikasprozesua *continuum* gisa ulertzen dute, eta, hizkuntzen jabekuntza horretan, hizkuntzak bakantzeko eta isolatzeko muga artifizialak ahal bezainbeste ekidin eta elkarren harremana sustatu nahi dute, ikaskuntza naturalagoa izateko eta prozesua katalizatzeke. Are gehiago, ikuspegi elebakarrarekin lotzen ditu zuzentasunean oinarritutako ikaskuntza eta hizkuntzen arteko interferentziak; bide beretik, eleaniztunaren gaitasun linguistikoak eta komunikatiboak hauspotzen ditu, horiek baliatuta hizkuntza-irakaskuntza eta -ikaskuntza errazteko.

Orriotan aurkezten ari garen ikerketak eleaniztasunaren paradigma berri horretatik edaten du, eta hala ulertzen ditu hizkuntzak. Ikerlanaren habe teoriko nagusia *Focus on Multilingualism* edo Ikuspegi Eleanitza eredu litzateke (Cenoz & Gorter, 2011, 2014). Ikuspegia aurretiaz azaldutako *The Multilingual Turn* korrontearen gainean eraikia da, hezkuntza-ikerketari aplikatzeko sortua. Hizkuntzak hiztunaren funtzio komunikatiboak betetzeko bitarteko gisa ulertzen ditu, izanik hiztun eleanitzak benetako protagonistak. Arreta ez da elkarren arteko muga linguistiko hutsetara mugatzen; aitzitik, eleaniztunak ezagun dituen hizkuntza guztiak baliabide linguistiko natural gisa ulertzen dira, komunikazio-helburuak erdiesteko baliagarri. Hiru dimentsio nagusik osatzen dute

Ikuspegi Eleanitza: bat, hizkuntza-ezagutzak; bi, testuinguru sozialak; eta hiru, hiztun eleanitzak. Lehenengoak, hizkuntza-ezagutzak, sistema linguistiko oso bat ordeztzen du, eta elkar-osatzen duten hizkuntzak konektaturik leudeke ezagutza osoa osatzeko. Bi jomuga nagusi ditu: bat, komunikaziorako baliabide gehiago izatea eta, bi, hizkuntza gehigarrien ikaskuntza laguntzea. Bigarrenak, testuinguru sozialak, hizkuntzei ezaugarri soziala aitortzen die, zuzentasunaren eta aspektu linguistikoen gainetik; testuinguru soziala identifikatu eta ezagun duen hizkuntza-ezagutza osoa egoerara moldatzeko gaitasuna eleaniztunarena baita, funtzio komunikatiboak arrakasta izan dezan. Eta hirugarrenak, hiztun eleanitzak dakizkien hizkuntzetan hiztun elebakarraren maila eta konparazioak saihesten ditu; horren ordeztan, hizkuntzek osatzen duten itsaso horretan, nabigatzaile gisa ulertzen du ereduak hiztun eleanitza, uneoro testuinguru aldakorrera egokitu beharrean.

Ikerketaren euskarri teoriko nagusia azaldurik, honako lerroetan usteak definituko ditugu, ikertuko dugun ezaugarria baita. Hala, usteak, definizioz, adiera desordenatu bezala ulertzen dira, bere baitan duten ikuspuntu anitz eta konplexuengatik, ezinezkoa baita definizio orokor bat osatzea (Pajares, 1992). Gainera, uste horiek elkarloturik daude eta sistemak osatzen dituzte, norbanakoak testuingurua ulertu eta irakas-jarduna errealitatera egokitzeko (Zheng, 2013). Era berean, irakasleen usteek eragin handia dute erabaki pedagogikoetan, eta, oro har, erresistentzia-maila handia dute, izanik oso kontuan hartzeko aldagaiak irakaslearen jarduna iragartzeko garaian (Borg, 2006). Azken batean, usteak irakaslearen ezagutzaren eta esperientziaren parte dira, isla izanik irakaskuntzaren alderdi behagarrian zein ez-behagarrian (Borg, 2003); beste hitzetan, irakaslearen jardun eta jarreretan islatzen dira.

Gurean, euskarari buruzko usteak ikertu dituzten lanen artean, Artzai Gasparren (2020) ikerketa topa genezake. Haren lanak, oro har, Gipuzkoako, Bizkaiko, Nafarroako eta Arabako gazteen uste eta jarrerak ikertzen ditu. Alde batetik, euskalkia euskara batua bezain natural edo *autentiko* iruditzen zaie egungo gazteei; halere, euskalkia iruditzen zaie naturalago gune tradizioz euskaldunagokoak direnei. Kontrapuntu gisa, euskara estandarraren kontrako iritziak askoz ere apalagoak direla baieztatzen da; hau da, euskara batuaren normalizazioak aurrera segitzen duela. Ikerketa horri, Kike Amonarriz (2019) soziolinguistaren ekarpena gehitu beharko litzaioke. Haren esanetan, euskara batuak bere bidea urratzen jarraitzen du, jarrera eta uste negatiboekin apurtzen ari delarik gizartea.

Horrez gain, adituak azpimarratzen du euskara ikasteko prozesuari gizarteak atxikitako goiburua: euskara ikastea eginkizun zaila, konplexua dela.

Hala, euskal gazteen euskara-ezagutza eta -erabilera ikertu ditu Mondragon Unibertsitatean eginiko ikerketak (Garcia et al., 2017). Bertan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (HUHEZIn), aztertu dira 1. mailako ikasleen hizkuntza-ezagutzak, -ohiturak, -jarrerak eta -erabilera. Emaitzek erakutsi dute HUHEZIn Gradua egiten ari diren ikasleek euskara-maila altua dutela. Halere, horrek ez du euskararen erabilera bermatzen, ikasleek gaitasun handia eta euskarekiko jarrera positiboa erakutsi badituzte ere. Gainera, ikasleek adierazten dute jakitun direla ezagutzaren eta erabileraren arteko arrakalarekin; izan ere, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dituzten uneak urriak dira, %37 inguru. Ororen gainetik, honela laburbil genezake: ikasleek euskara ezagutza-maila handia izan arren, inguru eta ikasgune euskaldun batean euskararekiko jarrera positiboa izan arren, hizkuntzaren erabilera ez dago bermaturik.

Bestalde, Jon Aizpuruak (2018) euskararen erabileran eragina duten faktore nagusiak azaldu ditu 1991 eta 2016 urte bitarteko Inkesta Soziolinguistikoko datu estatistikoak oinarri. Ondorioei beha, azken hogeita bost urteotan, berrogeita hamar urte azpikoen artean igo da euskararen erabilera, baina igoera hori ez da homogeneoa izan. Erabileran eragina duten aldagai esanguratsuenei erreparatuz gero, euskara-hiztunen harreman-sarea eta hizkuntza erabiltzeko erraztasuna dira baldintza garrantzitsuenak. Bigarren aldagaiaren xehetasunei begira, esan daiteke azken hogeita bost urteotan behera egin duela euskara erabiltzeko erraztasunak; 1991n herenak zuen hizkuntza erabiltzeko erraztasuna eta 2016n, aldiz, laurdenak. Gainera, euskara eskolan edo euskaltegian ikasi duen hiztunaren profila gailentzen ari da, gurasoak erdaldunak izanik. Transmisio modu horrek eragina du euskara jasotzeko bidean, hizkuntza-moldean, espazio informaleko erabileran eta erraztasunean. Adituaren arabera, giltzarri da harreman-sareak trinkotzeko urratsetan aurrera egitea, hizkuntza-erabileran eragin positiboa baitauka eta, aldi berean, hiztunaren erabilerraztasuna handitzen baitu. VI. Inkesta Soziolinguistikoko datuek erakusten dute, EAEn, euskara-erabileraren hazkundea progresiboa izan dela 1991etik (% 15,6) 2016ra bitarte (% 20,5); Nafarroako neurketa-emaitzak gorabeheratsuagoak dira, zonifikazio linguistikoak mugatuta, osotara, Foru Komunitate osoan 1991n erabilera % 6koa izan da eta 2016an % 6,6koa (Eusko Jaurlaritza, 2016).

Nafarroan egindako XVIII. Jagon jardunaldien ondorioek hainbat hari-mutur agerian utzi zituzten, egun ere zeresana dutenak (Osa, 2013). Horien artean, esanguratsuenak dira euskararen estatusa eta Nafarroako Foru Erkidegoko ofizialtasun-mugak. Inkesta soziolinguistikoek azpimarratzen dute euskararekiko bilakaera baikorra izan dela adin guztietan, bereziki azpimarragarria gazteenen kasuan. Halaber, argitu da euskararen erabileran ezaugarri askok duela zerikusia, hala nola, muga juridikoak, diru-laguntzak, hizkuntzarekiko atxikimenduak, eremu soziolinguistikoak, bizitokiak, euskara-gaitasunak, hizkuntza erabiltzeko aukera errealak eta gurasoen hizkuntza-jarrerak.

Metodologiari ekin baino lehen, gogoratu behar dugu ikerketa honek helburu duela etorkizunean irakasle izango direnen eleaniztasun-ustek eta, batez ere, euskarari buruzko ustek bildu eta analizatzea. Hain zuzen ere, Haur eta Lehen Hezkuntza Graduetako ikasleek hizkuntzei ematen dieten garrantzia- eta zailtasun-maila, horietan duten iaotasuna, inkesta betetzerakoan erabili duten hizkuntza eta hautu linguistiko horren atzean dagoen arrazoia. Hurrengo orriotako analisiak asmo du egundaino egin den ikerketa-alorrari jaramon egin eta etorkizuneko irakasleek dakartzaten hizkuntza-ustek hobe konprenitzea.

3. Metodologia

Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak ikasten ari diren ikasleen hizkuntza-ustek deskribatzea helburu, ikuspegi kuantitatiboa aplikatu zaio ikerketari. Ondorengo lerroetan, emaitzak eskuratzeko bidean emandako urrats guztiak azalduko dira, eta erabilitako gidalerroak zehaztuko, besteak beste, ikerketa-laginaren tasunak, instrumentuaren xehetasunak, datuak jasotzeko prozedura eta horiek analizatzeko egindako analisiak.

3.1 Ikerketa-lagina:

Ikerketa honetako protagonistak Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduak ikasten ari diren ikasleak dira. Hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateetan formatzen ari diren ikasleak dira; zehatzago, EAEn: Euskal Herriko Unibertsitatekoak (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kanpusetakoak), Mondragon Unibertsitatekoak eta Deustoko Unibertsitatekoak (Donostiako eta Bilboko kanpusetakoak); Nafarroan, aldiz: Nafarroako Unibertsitate Publikokoak. Datuak 2017/2018 ikasturtean bildu dira, eta, guztira, 564 Gradu-ikasleek osatzen dute ikerketa-lagina. Horietatik guztietatik, % 79,1 (N= 446) Lehen Hezkuntzako gradua ikasten ari da, % 19,1 (N= 108) Haur Hezkuntzako

eta gainerako % 1,8k (N= 10ek) hezkuntzarekin harreman zuzena duen Gradu-ikasketaren batean dihardu. Kanpusari dagokionez, EAEko unibertsitateen artean, % 23,2 (N= 131) UPV/EHUkoa da Bizkaiko Kanpusean, % 20,7 (N= 117) Arabako Kanpusekoa eta % 16,5 (N= 93) Gipuzkoako Kanpusekoa; Deustoko Unibertsitateari begira, % 19,5 (N= 110) Bilboko Fakultatekoa da eta % 7,4 (N= 42) Donostiakoa; Nafarroan, % 7,4 (N= 42) UPNA/NUPen ari da ikasten.

Sexuari beha, % 77,1 (N= 435) emakumezkoa da, % 21,8 (N= 123) gizonezkoa eta % 1,1 (N= 6) ez-binario. Gradu-ikasleen batezbesteko adina 21,2 urtekoa da, izanik 18 urtekoa parte-hartzailerik gazteena eta 46koa zaharrena. Gradu-ikasturte akademikoari erreparatuta, 119 lehenengo ikasturte akademikoan dago, 199 bigarrenean, 126 hirugarrenean, 97 laugarrenean eta 23 ikasturte gehigarrietan. Gradu-ikasleen lehen-hizkuntzari so, % 44,1ek (N= 249k) espainola adierazi dute ama-hizkuntza gisa, % 36k (N= 203k) euskara, % 19,1ek (N= 108k) bi hizkuntzak (espainola eta euskara), % 0,4k (N= 2k) ingelesa, % 0,2k (N= 1ek) beste hizkuntza bat eta % 0,2k (N= 1ek) hiru hizkuntza: espainola, euskara eta ingelesa.

Jaiotako lurraldeagatik banatuta, % 44,9 (N= 253) Bizkaian jaioa da, % 33,2 (N= 187) Gipuzkoan, % 12,1 (N= 68) Araban, % 8,5 (N= 48) Nafarroan, % 0,2 (N= 1) Iparralden, beste % 0,2 (N= 1) Espainiako lurraldean eta % 1,1 (N= 6) beste herrialderen batean. Unibertsitatera joan aurretik murgildutako hizkuntza-ereduari begira, % 88,3 (N= 498) D ereduan matrikulatua izan da, % 9,4 (N= 53) B ereduan, %1,4 (N= 8) A ereduan eta % 0,9 (N= 5) G ereduan. Orain, Gradu-ikasle horien eskolatze-sareari beha, % 47,3 (N= 267) eskola publikoan eskolatua izatetik dator, % 21,1 (N= 119) eskola kontzertatutik, % 14,4 (N= 81) Ikastolen Elkartetik, eta % 17,2k (N= 97) hainbat eskola-sare tartekatu dute hezkuntza-etapa ezberdinetan zehar.

3.2 Instrumentua

Online-galdetegia propioa diseinatu da Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduetako ikasleen usteak biltzeko, doktore-tesi bati dagokion ikerketa luzeago baten zati izanik. Online galdetegia itxia da, eta, berau diseinatzerako garaian, DREAM (Donostia Research on Education And Multilingualism) ikertaldean erabilitako ikerlanetako eta doktorego-tesietako instrumentuak izan ditu oinarri. Orotara, bost aspekturi buruzko ikerketa kuantitatiboa da esku artekoa, hizkuntzei eta eleaniztasunari atxikitako usteak nahiz jarrerak aztertzea helburu dituena. Zehazki, honako bost ezaugarriak aztertzea du xede: bat, norberak bere buruari ematen dion euskara-, espainol-, ingeles- eta frantses-mailen

usteak; bi, lau hizkuntza horiek ikasterako garaian, etorkizuneko irakasleek hizkuntza bakoitzari aitortzen dioten zailtasun-maila; hiru, hizkuntza bakoitzari norberak ematen dion garrantzia-maila; lau, galdetegia hiru hizkuntzetan (espainolez, euskaraz eta ingelesez) betetzeko aukera izanik, Gradu-ikasleek egin duten hautua; eta bost, hizkuntza jakina hautatu izanaren arrazoia. Bost aspektu konkretu horiek ikertu nahi dira, etorkizunean Hego Euskal Herriko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasle izango diren eleaniztasun-usteak ikuspegi ezberdinetatik arakatzeko eta, bereziki, euskarari zer eta nolako lekua ematen dioten jakiteko.

Likert-eskala erabili da lehenengo hiru aspektuak neurtzeko, 1etik 5era, oso txikitik oso handira; laugarrenean, aldiz, galdetegiaren hasieran hiru hizkuntzetan eskaini zaio inkesta parte-hartzaileari, eta aukeraketaren datuak lirateke; bosgarrenean, hizkuntza-hautaketa horri buruz galdetu zaio, eta zazpi aukera posible eman zaizkio arrazoibide gisa, izanik horietako bat “besterik” aukera.

3.3 Datuak jaso eta analisiak egitea

UPV/EHUK *Encuestafácil* (<http://www.encuestafacil.com>) programarako lizentzia eman, galdetegia online sortu eta online bete dute parte-hartzaileek. Hegoaldeko unibertsitate eta kanpus guztiekin jarri da harremanetan ikerlaria. Komunikazio bide bakarra posta elektronikoa izan da. Hezkuntza Fakultate bakoitzeko ikasketa-buru eta dekanoekin harremanetan jarri, eta email bidez bidali zaizkie ikerketarako gonbidapenak, eranskin gisa bidalirik ikerketan parte hartzeko onarpen-agiriak eta galdetegiako esteka. Dekano guztiek ikerketari baiezkkoa eman, eta agiriak sinatu dituzte parte hartu ahal izateko. Ikerlariak kanpuseko dekanok bakoitzari bidali dio ikerketa-gonbidapena; ondoren, dekanok bakoitzak matrikulatutako Gradu-ikasleei emailez bidali die ikerketan parte hartzeko gonbidapena. Ikerlariak ez du partaideekin harremanik izan ezta ikasleen kontakturako daturik jaso ere. Ikerketak UPV/EHUKo Etika Batzordearen aldeko txostena jaso du (identifikazio-kodea: M10_2017_143), eta haien gidalerroak egoki bete dira partaide guztien anonimotasuna, parte-hartze librea eta datuen babesa bermatu ahal izateko. Galdetegiako esteka bidali zaie ikasleei, eta sarbidea izan zuten 2018ko martxoaren 14tik maiatzaren 2ra bitarte. Datu kuantitatiboan analisirako SPSS (26. bertsioa) programa estatistikoa erabili da, eta egindako analisiak estatistiko deskribatzaileak izan dira.


4. Emaidzak

Atal honetan, arestian azaldutako bost aspektuei buruzko usteen datuak emango dira. Horretarako, datuen kalkulu estatistiko deskribatzaileak aurkeztuko dira.

4.1 Norberaren hizkuntza-gaitasunaren ustea

Etorkizunean irakasle izango direnei lau hizkuntzei (euskarari, espainolari, ingelesari eta frantsesari) buruz galdetu zaie, zehazki, bakoitzean norberak duen hizkuntza-gaitasunari buruz. Horietako bakoitzean daukan hizkuntza-gaitasunagatik galdetu zaio, 1etik 5era, oso maila txikitik oso handira bitarte. Emaidzak erakusgarri daude Irudia 1en.

Irudia 1. Norberaren hizkuntza-gaitasunaren ustea




Datuek erakusten dute euskarari eta espainolaren adierazi dituztela hizkuntza-gaitasunik handienak; hau da, Gradu-ikasleen % 89,4k uste du hizkuntza-gaitasuna handia duela bi hizkuntzetan. Aukeran emandako lau hizkuntzen artean, ingelesean da hirugarrena; hain zuzen ere, % 32,3k uste du gaitasun handia duela ingelesean, horren bitartean, % 21,7k maila txikia daukala uste duelarik. Lau horietarik, emaitza nabarmenenak frantsesarenak dira, izan ere, etorkizuneko irakasleen % 1,6k soilik uste du hizkuntza-gaitasuna handia duela; bestela esanda, % 94,9k uste du hizkuntza-gaitasun txikia duela hizkuntzarekin. Oro har, laburbil liteke esanez etorkizuneko irakasleek uste dutela hizkuntza-gaitasun handia dutela bi hizkuntzekin, euskara eta espainolarekin, ertaina ingelesarekin eta oso txikia frantsesarekin.

4.2 Hizkuntzari emandako garrantzia-mailaren ustea

Honako item-multzoan, lau hizkuntzak zerrendatu zitzaizkien Haur eta Lehen Hezkuntzako Gradu-ikasleei. Oraingoan, baina, norberak hizkuntza bakoitzari emandako garrantzia-maila adieraztea eskatu zitzaien, aurreko balio berberak erabilita (ikus Irudia 2).

Irudia 2. Hizkuntzari emandako garrantzia-maila




Grafikoan islaturiko datuak argigarriak dira: euskara da etorkizuneko irakasleek gehien balioesten duten hizkuntza. Hain zuzen ere, % 90ek garrantzia-maila handia aitortzen dio euskarari, eta, % 3,3k soilik du garrantzia gutxiko hizkuntzatzat. Euskarak jasotako babes-mailatik apur bat urrundurik, datuek irudikatzen dute espainolak eta ingelesak jasotako garrantzia-maila parekoa dela; hain zuzen ere, % 69,5entzat espainolak du garrantzia-maila handia eta % 73,1entzat ingelesak. Lehengo azpiatalean behatu bezala, oraingoan ere, frantsesa da etorkizuneko irakasleek gutxien aintzatesten duten hizkuntza, izanik soilik % 12,2rentzat garrantzitsua; ildo beretik, % 63,2ek adierazi du garrantzia-maila txikia duela. Laburbilduz, Haur eta Lehen Hezkuntzako Gradu-ikasleen artean aise identifika liteke, lau horien artean, euskara dela hizkuntzarik garrantzitsuena hogei puntuko alde argigarriarekin; halaber, espainola eta ingelesa garrantzitsuak dira, baina bigarren horren alde uste positiboagoak azaldu dituzte lehenengoarekin baino. Azkenik, frantsesa garrantzi gutxien duen hizkuntza gisa azaltzen da, izanik soilik hamar partaideren artean bat hizkuntza balioesteko usteak dituena.

4.3 Hizkuntza ikasteko zailtasun-maila

Honakoan ere, lau hizkuntzak aurkeztu zitzaizkien Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei, 1etik 5era, oso txikitik oso handira, ikasteko zailtasun-mailari buruz jakiteko (ikus Irudia 3ko datuak).

Irudia 3. Hizkuntza ikasteko zailtasun-maila




Datuek azaltzen dute, lau hizkuntzetatik, espainola dela zailtasun-maila txikiena duena; izan ere, % 11,6k soilik uste du hizkuntza zaila dela ikasten, eta % 37,7k zailtasun-maila txikikoa. Sailkapenarekin jarraituz, ingelesa da zailtasun-maila txikiena duen bigarren hizkuntza; datuak datu, % 43,2k uste du hizkuntza zaila dela ikasten eta % 9k, aldiz, zailtasun txikikoa. Pareko emaitzekin azaltzen dira euskara eta frantsesa. Hain zuzen ere, etorkizuneko irakasleen % 49,8rentzat euskara ikastea zailtasun handikoa da, eta % 20,4rentzat txikia; frantsesaren kasuan, % 60,1ek uste du eskakizun-maila handia duela, eta % 6rentzat txikia. Oro har, espainola da etorkizuneko irakasleek ikasten errazena uste duten hizkuntza; ondoren, ingelesa; segidan, euskara; eta azkenik frantsesa.

4.4 Galdetegia betetzen erabilitako hizkuntza eta hautaketaren arrazoia

Honako azpiatalak bi ezaugarri buruzko datuak emango ditu aditzera: batetik, etorkizuneko irakasleek galdetegia zein hizkuntzatan aukeratu duten; eta bestetik, hizkuntza-hautaketa horren atzean partaideek eman duten arrazoia. Beraz, lehenik eta behin, hizkuntza-hautaketaren datuei helduko diegu. Galdetegia hiru hizkuntzetara itzulia

izaki (euskarara, espainolera eta ingelesera), partaideari hiru horien artean hautatzen eman zitzaion hasieran, betetzeari ekin baino lehen (ikus Irudia 4).


Irudia 4. Galdetegian hautatutako hizkuntza



Grafikoan, galdetegiaren hizkuntza-datuak erakutsi bezala, erabat hondarrekoa da ingelesez hautatu dutenen kopurua: soilik Gradu-ikasle batek (% 0k) egin baitu aukeraketa hori. Bestalde, euskara izan da gehien aukeratuena, izan ere, ikerketan parte hartutako 564 Gradu-ikasleen artean, 377 dira euskaraz egitea erabaki dutenak; beste hitzetan, partaideen % 67k egin du hautu hori. Bestalde, 186 Gradu-ikaslek espainola aukeratu du, hau da, % 33k.

Galdetegiko hizkuntza-hautaketari dagokionez, Gradu-ikasleari zazpi aukera eman zitzaizkion hizkuntza-hautaketaren arrazoi gisa: erraztasunagatik, atxikimenduagatik, oharkabean, ulermen-arazo posibleak ekiditeko, hezkuntza-alorreko hizkuntza delako, hizkuntzaren izen onagatik eta besterik. Aurreko lerroetan ingelesaren pisu hutsala tarteko, espainolean eta euskaraz jasotako datuak izango ditu hizpide beheko grafikoak (ikus Irudia 5).

Irudia 5. Galdetegiko hizkuntza-hautaketaren arrazoa



Grafikoko datuek, hizkuntza bakoitzari dagokionez, emaitza ezberdinak ipini ditu aurrez aurre. Alde batetik, euskara hautatu duten Gradu-ikasleen artean bi arrazoi nagusirengatik egin dute: bat, hizkuntzarekin duten erraztasunagatik eta, bi, elearekiko duten atxikimenduagatik. Ehunekoei beha, % 37,6 eta % 31,6, hurrenez hurren. Hirugarren aukera gisa, oharkabean egin izana adierazi du % 10,6k. Bestetik, galdetgia espainolez hautatu dutenen artean aukera-izarra erraztasunarena da, izanik hautu hori espainola hautatzen duen kopuruaren erdia (% 53,2rena). Halaber, espainolez hautatutako kopuru osoaren laurdenak (% 25,3k) adierazi du oharkabean egin duela aukeraketa hori, eta % 12,9k hizkuntza hori aukeratu du ulermen-arazo posibleak ekidite aldera.

5. Eztabaida eta ondorioak

Azken atal honetan, ikerlaneko emaitza esanguratsuenak azpimarratu eta sakonago eztabaidatuko dira, atal teorikoan azaldutako ikerketa-emaitzekin konparaketak egiteko eta esku arteko ikerlanaren ondorioak borobiltzeko. Berriz ere, ikerketak asmo du Hegoaldeko Haur eta Lehen Hezkuntzako Gradu-ikasleen eleaniztasun-usteak arakatu eta horien berri ematea; zehatzago, curriculumean presente dauden lau hizkuntzei buruzko usteak, etorkizuneko irakasleak bakoitzari ematen dion garrantzia-, zailtasun- eta ezagutza-mailaren ikuspegitik ezagutzea. Ikerlanaren izaera kuantitatiboa da, galdetegi bitartez jaso baitira 564 Gradu-ikasleren usteak. Horrez gain, ikerlanak ere jomuga ditu galdetgia betetzerakoan partaideek hautatu duten hizkuntza eta zer arrazoi eman duten

aukeraketa hori egiterakoan. Aurkeztutako hurrenkera berean eztabaidatuko dira emaitzak.

Lehenik eta behin, etorkizuneko irakasleek lau hizkuntzen inguruan dituzten gaitasun-maileri begira, horietatik guztietatik, euskara eta espainola dira parez pare Gradu-ikasleek gehien ezagutzen dituztenak. Hain zuzen ere, hamar Gradu-ikasleren artean bederatzik uste dute gaitasun-maila handia dutela bi eleetan. Ingelesaren kasuan, nolabaiteko maila aitortzen dute, eta nagusi da maila ertaina duten ustea, izanik maila altua duten ikasleen kopurua handiagoa maila baxuagokoa baino. Frantsesak jasotako mailaren ustea, aldiz, arras azpimarragarria da, izan ere, etorkizuneko irakasleen artean, ehunetik laurogeita hamabostek adierazi du hizkuntza-gaitasuna apala duela hizkuntzarekin. Gradu-ikasleek hizkuntzekiko duten gaitasun-usteei beha, ondoriozta daiteke hiztun kompetente eta gaituztat dutela beren burua euskararen eta espainolean. Emaitza argigarria da, izan ere, euskararen erabileran eragina duten faktoreei dagokienez, ikerketek azpimarratzen dute hizkuntza-ezagutza giltzarri dela hizkuntza gutxituaren erabilera bermatu ahal izateko (Aizpurua, 2018; Garcia et al., 2017; Osa, 2013).

Edonola ere, datuak iradokitzaileak dira hirugarren hizkuntzaren ezagutza-mailan, ingelesean, Gradu-ikasleek maila ertain-altua dutela uste baitute; ondorioztapen hori ere gako da hizkuntzaren erabileraren eta, ondorioz, ikaskuntza osoago baten alde. Izan ere, metodologia eleaniztunagoak eta aurrerazaleagoak aplikatu litezke, espainolez eta euskaraz duen hizkuntza-ezagutza baliatzeko aukera emango diona ingelesa ikasterako garaian (Cenoz & Gorter, 2011, 2014; Conteh & Meier, 2014; May, 2014). Era berean, kezkarria ere bada frantsesaren ezagupen urria, ez soilik ikuspuntu eleaniztun pobregoarengatik (Gorter & Cenoz, 2017) baita Iparraldeko hizkuntza nagusi gisa izanik Hego Euskal Herrian bera ez ezagutzeak dakarren urruntzeagatik ere. Hala eta guztiz ere, errealitate linguistiko hori profitatu daiteke euskararen garrantzia hauspotu eta Hegoaldea Iparraldearekin lotzeko, euskara baliatzateke bi lurraldeen arteko lotune nagusia.

Bigarren ezaugarriari men, etorkizuneko irakasleek lau hizkuntzei emandako garrantzia-mailaren emaitzak ikerketa-ondorio argiak bezain positiboak dakartzio Hegoaldeko hizkuntza gutxituari. Izan ere, euskara da etorkizuneko irakasleek garrantzia handiena ematen dioten hizkuntza, izanik hamarretik bederatzirentzat garrantzia-maila handiko hizkuntza. Halaber, ingelesa eta espainola (hurrenkera horretan) balioesten dituzte, baina kopurua euskararekin baino dezente txikiagoa da, emanik hamar Gradu-ikasleren artean

zazpik garrantzi handia bi hizkuntzei. Frantsesaren kasua da berriz ere aipagarria, etorkizuneko irakasleek ez baitiote garrantzirik ematen; hamar Gradu-ikasleren artean soilik batentzat da garrantzitsua, eta, seirentzat, garrantzi txikikoa. Ikerketa-emaitzek iradokitzen dute hirueletasuna dela gehien balioesten dutena, izanik euskara, hizkuntza gutxitua, erdigune. Hirueletasuna balioan jartzeko usteek bat egiten dute hezkuntza-planekin eta hizkuntza-politikekin (Gorter & Cenoz, 2017).

Hirugarren uste-multzoan bildu diren datuek aditzera ematen dute euskarari jarri eta oraindik ere mantendu zaion etiketa: zailtasun handiko ikaskuntza dela. Ikerketa-emaitzek argi erakusten dute, ikasterako garaian, espainola dutela hizkuntzarik errazena. Bide beretik, etorkizuneko irakasleek uste dute ingelesa errazagoa dela ikasten euskara baino. Ikerketa-emaitza hori bat dator Amonarrizek (2019) eleaniztasunari eta bereziki euskarari buruz egindako analisi soziolinguistikoarekin, hain zuzen ere, gizarteak sakon erroturik baitu honako ustea: euskara izatez hizkuntza zaila dela. Hori bai, lau hizkuntzetatik Gradu-ikasleek frantsesa uste dute ikasten nekezena.

Galdetegiaren hizkuntza-hautaketaren emaitzei erreparatuz gero, argigarria da euskara nagusi dela hezkuntza-testuinguruan. Zehazki, Gradu-ikasleriaren bi herenak hizkuntza gutxituaren aldeko hautua egin du, eta gainerakoak espainolarena. Euskararen kopurua espainolaren bikoitza izan arren, argi-ilunak antzematen zaizkio, kontuan harturik etorkizuneko irakasleen gehiengoak euskararen oinarritutako heziketa formala jaso duela unibertsitatera iritsi arte eta, gainera, euskara dela Gradu-ikasketa horien irakas-hizkuntza nagusia. Bitxikeria ala ez, Garcia et al.ek (2017) HUHEZIn ateratako ikerketa-ondorioarekin bat, euskara-erabileraren kopuruaren emaitzak paraleloak dira. Bi ikerketa-ondorioek amankomuneko puntu batera daramate: Gradu-ikasleek euskara ezagutu bai, baina, gerora, erabilera apalagoa dela. Honako ikerketak begirada luzatu die espainola ala euskara erabiltzeko arrazoiei, eta esan liteke bi eragile nagusik eragiten dutela nabarmen espainolaren kasuan. Alde batetik, sekulako pisua du erraztasunak, espainolez aukeratu duen bi Gradu-ikasletik batek horixe aipatu baitu; bestetik, oharkabean egin izana dago, izanik kopuruaren laurdena. Euskaraz egitea erabaki dutenen artean, elkarren arteko alde gutxirekin, bi eragilek mugitzen dituzte Gradu-ikasleak hizkuntza gutxitua hautatzera: erraztasunak eta atxikimenduak. Lehenengoak bat egiten du espainolez hautatu dutenen aukera hedatuenarekin. Ondorio honek ez du inolako harridurarik sortu behar, izan ere, euskara da hezkuntza-alorrean normalizatutako eta gehien errotutako hizkuntza, eta, hortaz, esparru horretan ohituen eta trebatuen duten hizkuntza. Bigarrena, aldiz, espezial

ahokatzen da suspertze-bideetan murgildurik dauden hizkuntza gutxituen errealitatearekin (Amonarriz, 2019); izan ere, euskararekin sentzibilizatutako eta ardura soziala duen taldea da hezkuntzan diharduena, eta ezaugarri hori argi erakusten dute ikerketa-emaitzek.

Bibliografia

- Aizpurua, J. (2018). Euskararen erabilera eta erabileran eragiten duten faktore nagusiak. *BAT Soziolinguista Aldizkaria*, 106(1), 29–45.
- Amonarriz, K. (2019). *Euskararen bidegurutzetik*. Elkar.
- Borg, S. (2003). Teacher cognition in language teaching: A review of research on what language teachers think, know, believe, and do. *Language Teaching*, 36(02), 81–109. <https://doi.org/10.1017/S0261444803001903>
- Borg, S. (2006). *Teacher Cognition and Teacher Education: Research and Practice*. Continuum.
- Cenoz, J., & Gorter, D. (2011). *Focus on Multilingualism : A Study of Trilingual Writing*. <https://doi.org/10.1111/j.1540-4781.2011.01206.x>
- Cenoz, J., & Gorter, D. (2014). Focus on Multilingualism as an Approach in Educational Contexts. In A. Blackledge & A. Creese (Arg.), *Heteroglossia as Practice and Pedagogy* (239-254 or.). Springer. <https://doi.org/10.1007/978-94-007-7856-6>
- Conteh, J., & Meier, G. (2014). *The Multilingual Turn in Languages Education*. Multilingual Matters. <https://doi.org/https://doi.org/10.21832/9781783092246>
- Erdocia, I. (2018). Medium of instruction ideologies: accommodation of multilingualism in the bilingual regime of Navarre. *Current Issues in Language Planning*, 20(3), 1–25. <https://doi.org/10.1080/14664208.2018.1503457>
- Etxebarrieta, G. R., Pérez-izaguirre, E., & Langarika-Rocafort, A. (2020). Teaching minority languages in multiethnic and multilingual environments: Teachers' perceptions of students' attitudes toward the teaching of basque in compulsory education. *Education Sciences*, 10(2), 1–20. <https://doi.org/10.3390/educsci10020025>
- Eusko Jaurlaritza. (2015). Oinarrizko hezkuntzako curriculum. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*. http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/heziberri_2020/eu_2_proyec/adjuntos/OH_curriculum_osa.pdf
- Eusko Jaurlaritza. 2016. *VI Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

- Garcia, L., Arratibel, N., & Irizar, A. (2017). Euskararen ezagutza eta erabilera binomioa: Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko 1. mailako ikasleak ulertzeko gakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 4(105), 163–199.
- Gaspar, A. (2020). Euskara batuaren eta euskalkien inguruko jarrerak eta iritziak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 115(2), 137–153.
- Gorter, D., & Cenoz, J. (2017). Language education policy and multilingual assessment. *Language and Education*, 31(3), 231–248. <https://doi.org/10.1080/09500782.2016.1261892>
- Grosjean, F. (1985). The bilingual as a competent but specific speaker-hearer. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 6(6), 467–477. <https://doi.org/10.1080/01434632.1985.9994221>
- Martínez de Luna, I. (2018). Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garaiko erronka. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 106(1), 47–64.
- May, S. (2014). *The Multilingual Turn: Implications for SLA, TESOL, and Bilingual Education*. Routledge. <https://doi.org/10.43249780203113493>
- Nafarroako Gobernua. (2014). Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzako Curriculuma. *Nafarroako Aldizkari Ofiziala*, 174. NAO,(60/2014 Foru Dekretua).
- Osa, E. (2013). Euskara Nafarroatik XVIII. Jagon jardunaldiaren ondorioak. *Euskera*, 58(1), 157–160.
- Pajares, M. F. (1992). Teachers' beliefs and educational research: Cleaning up a messy construct. *Review of Educational Research*, 62(3), 307–332.
- Zheng, H. (2013). Teachers' beliefs and practices: a dynamic and complex relationship. *Asia-Pacific Journal of Teacher Education*, 41(3), 331–343. <https://doi.org/10.1080/1359866X.2013.809051>